



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko apirilaren 22a

41. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriari 2013an aplikatuko zaizkien moduluak ezartzen dituena. Sustapen Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Eskubide Sozialen Gutun baterako Foru Lege proposamena. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialari buruzko martxoaren 9ko 2/2006 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).
- Foru Lege proposamena, gardentasunari eta jarduera publikoaren kontrolari buruzkoa. Akats zuzenketa (6. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Gizarte Politiketako Batzordeak onetsitako erabakia, inbertsio sozialki arduratsu bat egin eta haren gordailuen zati bat Fiare banku etikoa-ren produktuetan inbertitzeari buruzkoa. Gizarte Politiketako Batzordeak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi eta arbuiatzen du espainiar militarrek beren nazioarteko misioetan egin ahal izan duten tortura eta tratu txar oro. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak onetsia (7. or.).
- Zentsura mozioa, Nafarroako Gobernuari eta bere Lehendakariari aurkeztua. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legearen lehen xedapen gehigarria ez betetzei buruzkoa, Txema Mauleón Echeverría jaunak egingina (9. or.).

- Galdera, jakitekoa zer jarrera izanen duen Osasun Departamentuak laborategi bateratua nahierara esleitzeari buruzko salaketen aurrean, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (10. or.).
- Galdera, haurdunaldia borondatez eteteari buruz Kontuen Ganberak egindako txostena behin ezagututa Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (10. or.).
- Galdera, Lizarrako Teknologia Zentroa itxiko dela iragarri ostean, emanen zaion edukiari buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (11. or.).

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa hautatzeko arauak (12. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013an aplikatuko zaizkien moduluak ezartzen dituen.**

### **SUSTAPEN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Sustapen Batzordeak onetsitako irizpena, Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013an aplikatuko zaizkien moduluak ezartzen dituen Foru Lege proiektuari buruzkoa. Proiektu hori 2013ko otsailaren 25eko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko apirilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **IRIZPENA**

Sustapen Batzordeak 2013ko apirilaren 16an eginiko bilkuran onetsia.

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013 eta 2014an aplikatuko zaizkien moduluak ezartzen dituen**

### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, Nafarroako Gobernuari dagokio etxebizitza babestuak eta haien eranskinak saldu eta errentan emateko gehieneko prezioak ezartzea. Prezio horiek foru legean zehazten diren modulu ponderatuen eta ponderatu gabeen arabera ezartzen dira urtero, eta haien kalkulua aipatutako artikuluan azaltzen den formula erabiliz egiten da.

2012ko abenduaren 18an, Kontuen Ganberak "Etxe babestuen moduluari buruzko fiskalizazio txostena (2005-2012)" eman zuen, eta horren ondorioak eta gomendioak Parlamentuko talde guztiekin aztertu beharko ditugu.

Zehazki, modulua ezarri eta eguneratzeari dagokionez, Comptos Ganberaren txostenaren ondorioa hau da: "Modulua erabakigarria da etxebizitzaren salmenta eta alokairuko prezioan, eta beraz, hura ezartzeko eta eguneratzeko oso kontuan hartu behar dira ondotik aipatzen diren alderdiak, are gehiago gaur egungo egoera ekonomikoan, krisiak langabe kopuru handia eta finantzabideak topatzeko zailtasunak eragin baititu:

a) Etxebizitza babestua eskatzen dutenen egoera; kontuan hartu beharra dago salmenta eta alokairuko prezioa igotzeak larriagotu egingen lukeela etxebizitza eskuratzeko arazoa, eta ahalegin handiagoa egin beharra ekarriko luke errenta apalagoak dituzten herritarren kasuan, etxebizitza librea erosi edo errentan hartzeko adinako diru baliabiderik ez dutenen kasuan alegia.

b) Eraikuntzako sektorearen egoera; izan ere, etxebizitza babestuaren prezioak bide eman beharko du etxebizitza sustatu eta eraikitzen dutenek etekin zentzuzkoa lor dezaten, jarduera ekonomikoan berebiziko garrantzia duen sektore horren jarduera motelarazi gabe".

Bestetik, fiskalizazio organoak dioenez, "kome-ni litzateke modulua eguneratzeko formula aztertzea, aintzat hartzeko, besteak beste, eraikuntzan erabiltzen diren material berriak, lan-eskuaren tratamendua eta KPIren zehaztapena. Egungo formulak dagoeneko indarrak ez duen formula batean du jatorria, eta gainera, modulua nabarmen igotzeko aukera ematen duenez, hau bezalako krisi garaietan ere, etxebizitza babestua eskuratzeko zailtasunak areagotu ditzake".

Moduluak ezartzeko formularen aplikazioaren emaitzak ez dira seguruak oraindik; gerta daiteke igotzea eta, Kontuen Ganberak egindako txostenaren ondorioak ikusirik, ez litzateke batere kome-

nigarria. Horrez gain, moduluak eguneratzeko formula aztertze gomendia egiten du erakundeak.

Hori dela eta, beharrezkoa da 2012an indarra izan duten moduluak bere horretan uztea, berehala indarra hartuko duen lege mailako arau baten bidez, legez aurreikusitako formula aplikatuz moduluen igoerak ekarriko lituzkeen ondorioak saihesteko; egoera berriz aztertu beharko da Parlamentuan azterketa egin ondoren.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013 eta 2014an aplikatuko zaizkien moduluak.

1. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013an eta 2014an aplikatuko zaien modulu ponderatua 1.246,53 eurokoa izanen da metro karratu erabilgarri bakoitzeko.

2. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013an eta 2014an aplikatuko zaien modulu ponderatu gabea 1.192,85 eurokoa izanen da metro karratu erabilgarri bakoitzeko.

**Xedapen gehigarri bakarra.** Moduluak eguneratzeko formularen hurrengo aplikazioa.

Moduluak eguneratzeko formula, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 10. artikuluan jasotakoa, berriz aplikatzen denean, kontuan hartu beharko da ezartzeko garaian ezagunak diren azken adierazleetan urte batetik bestera izandako aldaketa.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege proiektu hau 2013ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Eskubide Sozialen Gutun baterako Foru Lege proposamena.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2013ko apirilaren 11n egindako Osoko Bilkuran, Eskubide Sozialen Gutun baterako Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu eta 2013ko otsailaren 26ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**1.** Eskubide Sozialen Gutun baterako Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Gizarte Politiketako Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2013ko maiatzaren 15eko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Lege proposamena, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialari buruzko martxoaren 9ko 2/2006 Foru Legea aldatzen duena.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2013ko apirilaren 11n egindako Osoko Bilkuran, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialari buruzko martxoaren 9ko 2/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2013ko otsailaren 25eko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**1.** Kontseilu Ekonomiko eta Sozialari buruzko martxoaren 9ko 2/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2013ko maiatzaren 15eko eguerdiko hamabietan bukatu da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta

148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariiek zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Foru Lege proposamena, gardentasunari eta jarduera publikoaren kontrolari buruzkoa.**

### **AKATS ZUZENKETA**

Akats bat aurkitu da 2013ko martxoaren 25eko Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakiaren argitalpenean (37. NPAO, 2013ko apirilaren 9koa). Aipatu erabakia Aralar-Nafarroa Bai parlamentu taldeak aurkezturiko gardentasunari eta jarduera publikoaren kontrolari buruzko Foru Lege proposamenaren gainekoa zen. Hona erabakiaren testu osoa:

"Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 25ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak gardentasunari eta jarduera publikoaren kontrolari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak horri buruzko erabakia hartu ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin gardentasunari eta jarduera publikoaren kontrolari buruzko Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamena presako prozeduraz izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela".

Iruñean, 2013ko apirilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Gizarte Politiketako Batzordeak onetsitako erabakia, inbertsio sozialki arduratsu bat egin eta haren gordailuen zati bat Fiare banku etikoaren produktuetan inbertitzeari buruzkoa.**

*GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak, 2013ko apirilaren 10ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Gizarte Politiketako Batzordeak onetsitako erabakia, inbertsio sozialki arduratsu bat egin eta haren gordailuen zati bat Fiare banku etikoaren produktuetan inbertitzeari buruzkoa”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernua premiatzea bete dezan Gizarte Politiketako Batzordeak 2010eko apirilaren 21ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen bere gordailuen zati baten inbertsio sozialki arduratsua egin dezan Fiare banka etikoaren produktuetan”.

Iruñean, 2013ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi eta arbuiatzen du espainiar militarrek beren nazioarteko misioetan egin ahal izan duten tortura eta tratu txar oro.**

*BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak, 2013ko apirilaren 10ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi eta arbuiatzen du espainiar militarrek beren nazioarteko misioetan egin ahal izan duten tortura eta tratu txar oro”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak gaitzesten eta arbuiatzen du militar espainiarrek beren nazioarteko misioetan eragindako tortura eta tratu txar oro; zehazki, argitaratutako informazioen arabera Iraken inbasioan gertatutakoak.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko agintariak eta agintari judizialak premiatzen ditu salatutako gertakariak zorrotz iker ditzaten, eta horietatik heldu diren ardurak erabat argi ditzaten”

Iruñean, 2013ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Zentsura mozioa, Nafarroako Gobernuari eta bere Lehendakariari aurkeztua.**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Ondoko foru parlamentariak zentsura mozioa aurkeztu zieten Nafarroako Gobernuari eta bere Lehendakariari: Koldo Amezketza Díaz jauna, Miren Julia Aranoa Astigarraga andrea eta Bikendi Barea Aiestaran jauna (Bildu-Nafarroa parlamentu-taldea); Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andrea, Txentxo Jiménez Hervás jauna, Xabier Lasa Gorraiz jauna, Juan Carlos Longás García jauna eta Nekane Pérez Irazabal andrea (Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldea); Maiorga Ramírez Erro jauna, Víctor Rubio Martínez jauna, Bakartxo Ruiz Jaso andrea eta Aitziber Sarasola Jaca andrea

(Bildu-Nafarroa parlamentu-taldea) eta Patxi Zabaleta Zabaleta jauna (Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldea).

Legebiltzarrak, 2013ko apirilaren 18an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen baztertzea Nafarroako Gobernuari eta bere Lehendakariari aurkeztutako zentsura mozioa. Mozio hori 2013ko apirilaren 15eko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko apirilaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legearen lehen xedapen gehigarria ez bete-  
tzeari buruzkoa.**

*TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legearen lehen xedapen gehigarria ez bete-  
tzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikita-  
ko foru parlamentari Txema Mauleónek ondoko galdera egin du, Gizarte Gaietako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legeko lehen xedapen gehigarriak hiru hilabeteko epea ezarri zuen, Gobernuako departamentuek txosten bana egin zezaten, foru lege horretan xedatutakora egokitzeko planak noraino bete diren ebaluatzeko.

Argi dago Nafarroako Gobernuak orain arte ez duela bete, oro har, xedapen horretan agindutakoa; izan ere, parlamentu-erantzun baten bidez jakin dugu Gizarte Politiketako Departamentua dela bakarra Lehendakaritza Departamentuari oraindik informazio hori bidali ez diona –departamentu hori da arlo horretako koordinazioaz arduratzen dena–.

Hori guztia ikusita, ondokoa galdetzen dugu:

Gizarte Gaietako Departamentuak zergatik ez du bete, norik eta berak, lege hori onetsi zenetik hiru urte igaro eta gero, lehen xedapen gehigarri-  
an agindutakoa?

Iruñean, 2013ko apirilaren 18an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

## **Galdera, jakitekoa zer jarrera izanen duen Osasun Departamentuak laborategi bateratua nahierara esleitzeari buruzko salaketen aurrean.**

*ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, jakitekoa zer jarrera izanen duen Osasun Departamentuak laborategi bateratua nahierara esleitzeari buruzko salaketen aurrean.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialdek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasan handiko galdera hau aurkeztu du, apirilaren 25eko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilari Vera andreak ahoz erantzun dezan:

Zure departamentuak zer jarrera izanen du laborategi bateratua nahierara esleitzeari buruzko salaketen aurrean? Zergatik ez zien kasurik egin profesionaleri esleipen-irizpideak definitzean?

Iruñean, 2013ko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

## **Galdera, haurdunaldia borondatez eteteari buruz Kontuen Ganberak egindako txostena behin ezagututa Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.**

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, haurdunaldia borondatez eteteari buruz Kontuen Ganberak egindako txostena behin ezagututa Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak zer neurri hartzeko asmoa du, haurdunaldia borondatez eteteari buruz Kontuen Ganberak egindako txostena behin ezagututa, txostenean adierazten baita abortuak osasun-sistema publikoan egitea merkeagoa izanen litzatekeela pribatuan egitea baino?

Iruñean, 2013ko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, Lizarrako Teknologia Zentroa itxiko dela iragarri ostean, emanen zaion edukiari buruzkoa.**

*SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Lizarrako Teknologia Zentroa itxiko dela iragarri ostean, emanen zaion edukiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den apirilaren 25eko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Lizarrako Teknologia Zentroa itxiko dela iragarri ostean, zer eduki emanen zaio zentro horri?

Iruñean, 2013ko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa hautatzeko arauak.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak 8.3 artikuluan xedatzen duenez, "kargua hutsik delarik, Nafarroako Foru Komunitateko ararteko berri bat izendatzeko prozedura hasiko da; prozedura hori hilabete baino lehen abiarazi beharko da."

Aurtengo martxoaren 21eko Legebiltzarreko Lehendakariaren erabakiaren bidez deklaratu zen Nafarroako Arartekoaren kargua hutsik egonen zela martxoaren 23tik aitzina. Hortaz, aipaturiko Foru Legeko 2., 3. eta 8. artikuluetako xedapenak garatuko dituzten arauak onetsi beharra dago, kargu hori hautatzeko prozedura arautze aldera.

Arau horiek are beharrezkoagoak dira aipaturiko Foru Legean 2008. urtean egindako aldaketaren ondoren. Aldaketa horrek eragiten dio Foru Legeko 2. artikuluan Arartekoa hautatzeko aurreikusitako sistemari, zeinak prozedura konplexu bat ezartzen baitu, non, Legebiltzarreko Mahaiaz eta Osoko Bilkuraz gain, Foru Araubideko Batzordeak ere esku hartzen baitu. Beraz, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko Foru Legeko 2. artikuluan aurreikusitako hautatze-prozedura betetzeko asmoz, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 211. artikuluan xedatutakoari dagokionez, Erregelamendu horretako 37.1.9 artikuluan ezarritakoaren arabera, hona ERABAKIA:

**Lehena.** Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa hautatzeko ondoko arauak onestea:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren kargua hutsik, Ararteko berria hautatzeko prozedurari ekinen zaio, hautagaiak aurkezteko epea irekiz. Epe hori 2013ko apirilaren 23an hasi eta 2013ko maiatzaren 27ko goizeko hamarretan amaituko da.

2. Hautagaiak aurkezteko, parlamentu-taldeen idazki bat zuzenduko diote Legebiltzarreko Mahaiari, eta hari gehituko zaio hautagaitzaren onarpenari buruzko adierazpena eta Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko Foru Legeko 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzearen frogak.

Parlamentu-talde bakoitzak hautagai bakarra aurkeztzen ahalko du.

3. Dokumentu hauen bidez frogatuko da baldintzak betetzen direla:

a) Bere eskubide zibil eta politikoen gozamen osoa duela baieztatzen duen adierazpen pertsonala eta

b) Hautagaia Nafarroako udalerriren batean errolatuta egoteari buruzko ziurtagiria.

4. Hautagaiak aurkezteko epea amaiturik, Mahaiak erabakiko du proposatutako hautagaiak baldintzak betetzen ote dituzten, eta, hala bada, hautagaitzak onartu eta Foru Araubideko Batzordea igorriko ditu.

5. Foru Araubideko Batzordeak, berak hala nahita edo parlamentu-talde batek eskatuta, erabakitzen ahalko du proposaturiko hautagaiak agerraldi publikoa egitea batzorde horretan, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren karguan aritzeko haien egokitasuna aztertzeko. Kasu horretan, horrela arautuko dira agerraldiak:

a) Hautagai bakoitzak, gehienez ere hogeita hamar minutuz, azaltzen ahalko du bere jardueraprograma eta karguan aritzeko dituen merezimenduak.

b) Azalpen hori amaituta, parlamentu-taldeen bozeramaileak mintzatzen ahalko dira, gehienez ere hamabost minutuz, hautagaiaren ibilbide profesional edo akademikoaren inguruan argibideak eskatzeko, bai eta karguan aritzeko dituen gaitasunen inguruan ere.

c) Hautagaiaren agerraldia amaituko da bozeramaile parlamentarioei erantzuten, gehienez ere hamabost minutuz.

Lehendakaritzak agerraldia eginen dutenen eskubideak zainduko ditu, eta galderak ez ditu onartuko agerraldia egin duenaren ondrea edo intimitaterako eskubidea kaltetzen edo zalantzan jartzeko badute, bidegabeki. Batzordearen aurrean

agertzeko gonbitari uko egiten dion hautagai oro hautatze-prozesutik kanpo geratuko da.

Hautagaien agerraldia erabakitzen ez bada, Foru Araubideko Batzordeak seigarren arauan ezarritako eran hautatuko du hautagaia.

6.1. Ararteko izateko hautagaia Foru Araubideko Batzordean hautatuko da, isilpeko bozketan, boto-txartelen bidez. Haietan batzordeko kideek hautagai proposatuetako bakar baten izena idatzi ahalko dute.

2. Bozketa amaituta, kargurako proposatutako pertsonaren batek lortzen badu batzordeko kideen hiru bostenen aldeko botoa, aldarrikatuko da Ararteko izateko hautagai. Kasu horretan, Batzordeburuak Legebiltzarreko Mahaiari igorriko dio hautagaia aldarrikatzen duen erabakia. Mahaiak Arartekoa hautatzeko Osoko Bilkurarako deia eginen du; Osoko Bilkura hori ezin izanen da egin hautagai-aldarrikapenetik hamabost egun baliodun igaro baino lehen.

3. Hautagai bakar batek ere lortzen ez badu aurreko idatz-zatian adierazi den gehiengoa, beste bozketa bati ekinen zaio lehenbiziko bozketa egin eta bi egunen buruan. Eskaturiko gehiengoa berriz ere lortzen ez bada, bukatutzat emanen da hautatze-prozesua, eta Parlamentuko Mahaiak hautagai-proposameneren aurkezpeneko beste epe bat irekiko du, ezarriko den iraupena izanen duena.

7. Behin Foru Araubideko Batzordeak Arartekoa izateko hautagaia proposatuta, Osoko Bilkurak, aldez aurretik batzarra egiteko deituta, Ararteko

hautatuko du seigarren arauko lehen idatz-zatian ezarritako moduan egindako bozketaren bidez parlamentarien botoen hiru bostenen gehiengoa lortzen duena. Hautagaiak gehiengo hori lortzen badu, Nafarroako Foru Komunitateko Ararteko hautatuko da.

Aurreko idatz-zatian adierazitako gehiengoa lortzen ez bada, Legebiltzarreko Mahaiak –Osoko Bilkuran baztertuta gelditu den hautagaitza baino proposamen gehiago baldin badaude– Foru Araubideko Batzordea deituko du Ararteko izateko beste hautagai bat hauta dezan, Osoko Bilkura egin eta gehienez ere hilabeteko epean, seigarren arauan ezarritako eran eta ondorioekin.

Hautagai-proposamen bakarra badago eta Osoko Bilkurak baztertzen badu, hautatze-prozesua amaituko da eta prozesu berri bati ekinen zaio, seigarren arauko 3. idatz-zatiko bigarren paragrafoan aurreikusitako eran.

8. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren hautaketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Izendatutakoak bere karguaren jabetza hartuko du hautaketa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hamabost egun naturaleko epean.

**Bigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera





